

Irakurmenari buruz hainbat autoreen ekarpenak

Autor: Zabaleta Arangoa, Maider (Licenciada en Psicología, Graduada en Educación Primaria).

Público: Educación. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Irakurmenari buruz hainbat autoreen ekarpenak.

Resumen

Emilia Dezeo-Juan M. Muñoz: Bikote honek irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako metodo naturalaren eskuliburua argitaratu zuten (hizkuntza grafikoa). Bertan jarraibide eta teknika eraginkorrak eskaintzen dituzte. Gateño: metodo morfológico-algebraikoa, irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako da. Dislexiaren interbentziarako metodo gisa erabilgarria da. Fonema bakoitzaren grafiarekin asoziatutako koloreak erabiltzen ditu. Montessori: irakurketa-idazketa eta kalkulari buruzko metodo bat sortu zuen. Bere metodoa, mugimenduen erabateko askatasunean oinarritzen da. Metodo honekin, ikasleek irakurtzen, idazten eta gehiketa sinpleak kontatzen ikasten dute sei urte baino lehenago dituztelarik. Horretarako, eskolan eta etxean jarraipen egokia egin behar da. Comenio: hezkuntza unibertsalaren lehen defendatzaileetakoa. Bere metodo pedagogikoa oinarri bezala ikaskuntza prozesu naturalak zituen: indukzioa, behaketa, zentzumenak eta arrazoia.

Palabras clave: Irakurketa, idazketa, irakaskuntza.

Title: Contribution of different authors about reading.

Abstract

Emilia Dezeo-Juan M. Muñoz: They published the manual method of reading and writing teaching (graphic language). In it, they offer effective instructions. Gateño: a morphological-algebraic method for reading and writing teaching. It is useful as a method of intervention by dyslexia, Montessori: She created a method of reading and writing. Her teaching method is based on the full freedom of movement. Comenio: one of the first defenders of universal education. His pedagogical method was based on natural processes of learning: induction, observation, senses and reason.

Keywords: Reading, writing, teaching.

Recibido 2017-11-05; Aceptado 2017-11-14; Publicado 2017-12-25; Código PD: 090022

EMILIA DEZEO-JUAN M. MUÑOZ

Bikote honek irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako metodo naturalaren eskuliburua argitaratu zuten (hizkuntza grafikoa). Bertan, lehen hezkuntzako irakasleentzako jarraibide eta teknika eraginkorrak eskaintzen dituzte.


Proposamen hau metodo analitiko edo globalen barruan kokatuko litzateke. Esaldiak aztertu eta konparatetik abiatzen da hitz berberak, silaba antzekoak eta letra berdinak aurkitzeko.

Interesa erakusten duen ikasle batek edozein modutan ikasi dezake irakurtzen; helduek irakurtzen duten egunkarietako artikuluetako izenburuak errepikatzen, egunkarietan eta aldizkarietan hizkiak bilatzen, etab. azkenean, hizki bakoitzak bere zentzua duela deskubrituko du.

Ama batek bere umeari hitz egiten erakusten dion bezala, hau da, hitz bakoitzak duen zailtasun fonetikoaz kezkatu gabe, lehen hezkuntzako irakasleak ere momentu zehatz batean umeari interesatzen zaizkion hitzak irakurtzen eta idazten irakatsi diezazkioke. Hizkuntzaren lehenengo irakaslea ama dela diote autore hauek.

Autore hauen ustez, modu egokian ahoskatu behar da umeak hizkuntza berbal egoki bat eskuratzeko. Umea hasieratik modu egokian irakurtzen ohitzen bada, hots, irakurtzen duena interpretatzen, bere lehenengo liburua literaturaren mundu liluragarriko bidea irekiko giltza izan liteke.

Irakurketa eta idazketa aldi berean irakatsi behar direla azpimarratzen dute eta ez lehenengo bat eta gero bestea. Inpresioak aldi berean ikusiz, entzunez eta idatziz, hizkuntzaren irudi mentalak areagotzen dira (hizkuntza idatzia eta



hizkuntza berbala). Modu berean, muskulu motoreak lantzen dira. Beraz, ikusmena, entzumena eta muskulu motoreak elkar sustatzen dira euren arteko erlazioarengatik.

Aldiberekotasun honek, estimuluen errepikapenagatik irudia intentsitate handiz finkatzen laguntzen du baina erreakzio muskularrak modu seguruago eta azkarrago baten burutzea ahalbidetzen du hauek modu grafikoan erreproduzitzeko.

Dezeo eta Muñoz-ek letra edo kaligrafiari dagokionez, beraien ustez, irakasleak ez die ikasleei letra tipo determinatu bat inposatu behar, letra uniforme bat baizik, ikasle bakoitzarengan ongi formatutako letra.

Metodo naturalean, idazketaren irakaskuntza ikaslearen garapen psikologikoaren araberrako pausu batzuetan bereizten dituzte. Modu honetan, idazketa marrazki baten parte bezala ikusten dute. Horren ondorioz, irakasleak ez omen du ikaslea behartu behar elementuak deskubritzera, honek irakaskuntza astuna bihurtuko bailuke eta prozesu naturala oztopatuko bailuke. Irakasleak kontutan hartu behar du umeak berak deskubritu behar duela eta inoiz ez diela aurreratu behar. Metodo natural hau esanahitik abiatzen da, inoiz ez elementutik.

Emilia C. Dezeok eta J.M. Muñozek oinarritzko hezkuntzarako gomendatutako programan, lehenengo hizkuntza ariketak oralak izan behar dutela diote. Irakurketaren irakaskuntza hiru ikuspuntutatik ulertu behar dela diote: irakurketa mekanikoa, intelektuala eta espresiboa. Ekintza bakarrean dauden hiru alderdiak lirarteke.

Soinu ezagun bat behar adina landuta, alfabetoan daukan izena erakutsi behar omen zaio. Modu honetan, azkenean, ikasleek alfabetoa errezeitzeko gai izango dira. Autoreak metodo alfabetikoen aurka agertzen dira, metodo silabikoak, fonetikoak, hitz eta esaldien metodoak...ez dituzte egokiak ikusten, analisia eta deskonposaketa azkarregi aplikatzen direla pentsatzen baitute. Hori dela eta, irakurketa eta idazketaren irakaskuntzarako umearen bat bateko marrazkiak eta kartelak izenekin eta esaldiekin erabiltzen dituzte.

Honez gain, irakurketarako liburua testu bakarra ez izatea gomendatzen dute eta horretarako irakasleek beste testu batzuk inprimatu behar dituzte eta beste liburu batzuk erabili.

Dezeo eta Muñozen "Florece" irakurketa liburuan, lehenengo orrialdean zatitu gabeko hitzak eta esaldiak azaltzen dira. Garaiko gainerako beste liburuek berriz, "hitz sortzailea"-ren metodoa erabiltzen jarraitzen zuten.

GATEÑO

Gateñoen metodoa, metodo morfologiko-algebraikoa, irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako da. Dislexiaren interbentziarako metodo gisa erabilgarria da eta hau fonetismoan oinarritzen da. Fonema bakoitzaren grafiarekin asoziatutako koloreak erabiltzen ditu.

Gateñoen metodoa, irakurketa-idazketarako martxa sintetikoaren barruan kokatzen da. Elementu sinpleenetatik abiatzen dira (bokalak) unitate linguistiko nagusigoetaraino iritsi arte eta honek abstrakzio handia eskatzen du.

Gateñoen helduentzako metodo morfologiko-algebraikoa (kolore bati asoziatua), Montessorirenarekin batera, metodo berritzaile bat da. Gateñoen proposamen hau metodo sintetiko edo fonetikoaren barruan kokatzen da. Hizki eta soinuetatik abiatzen da hauekin silabak, hitzak eta esaldiak sortzeko.

Gateñoen metodo morfologiko-algebraikoan, kolorezko zenbakien edo erregleten (kolorezko zenbakiak) erabilera aplikatzen da pedagogian, matematikan, fisikan, psikologian, musikan, hizkuntzen ikaskuntzan, etab.

Kolorezko zenbakien bidez, pentsamendu logiko matematikoa garatzea da helburu eta ikaskuntza esperientziak eguneroko bizitzan aplikatzea.

Metodo honen printzipioak, ekintza, interakzioa, jolasa, indibidualizazioa, ikaskuntza esanguratsua eta esanahiaren eraikuntza dira.

MONTESSORI

Maria Montessorik irakurketa-idazketa eta kalkulari buruzko metodo bat sortu zuen. Bere irakaskuntza metodoa, mugimenduen erabateko askatasunean oinarritzen da. Metodo honekin, ikasleek irakurtzen, idazten eta gehiketa sinpleak kontatzen ikasten dute sei urte baino lehenago dituztelarik. Horretarako, eskolan eta etxean jarraipen egokia egin behar da.

Erabilitako materialen artean, tamaina eta forma ezberdinetako hamar bloke koloredun aurkitzen dira. Musika kaxa erabiltzen du entzumena garatzeko eta musikarako gustua garatzeko. Ariak, tela ezberdinak, haziak, bastoiak, tabletak...erabiltzen zituen ere. Material Horiek guztiak umeek erabiltzen zituzten beraien ikaskuntza sentsoriala gidatzeko.

Bere pedagogiaren arabera, hezkuntza prozesu bat da non “umeak eraikitzen duen gizona”. Haurtzaroan aldaketak ematen dira, esperientzia sentsorial anitzak izaten dira eta ikaskuntza eraginkorragoa da esperientzia sentsorialak aprobetxatzen direnean arlo ezberdinetako zentzumeneak garatzeko: artea, musika, teatroa eta adierazpena.

Montessoriren ustez, umeak ezagutza zientifikoa eskuratzeko beharra du eta irakasleak bere garapena bultzatu behar du.

Irakasleak ez du ezer inposatu behar, bere egin beharra bere garapena eta esperientziak gidatzea eta orientatzea izan behar du. Irakaslea ez da gelako arreta zentroa izan behar, ikaslearen eta ingurunearen arteko bitartekaria izan behar du.

Umeek arrazonomenduen bidez eskuratu behar dituzte ezagutzak, hots, beraiek egindako arrazomenduetatik ondorioztatuko da ezagutza. Ume bakoitzak bere pausua eta abiadura markatzen du eta hauek errespetatu egin behar dira.

Umeek ezagutza ingurunearekin eta askatasunarekin harremanduz lortzen dituzte eta ondorioz, bere irakaskuntza metodoan, independentzia eta indibidualtasuna dira garrantzitsuak. Askatasun horren barruan, ordena, disziplina eta ordutegia errealitatearen parte ziren.

Montessoriren ustez, eguneroko bizitzako ariketak diseinatu beharko ditu irakasleak eta hauek material sentsorialen eta material akademikoaren bidez planteatuko dira.

Bere ustez, umeak esponjak bezala dira non dena xurgatzen duten. Umeek hitz egiten, idazten eta irakurtzen dute ibiltzen, lasterka...ikasten duten bezala, hots, modu espontaneoan. Bere ustez, ume bakoitzak, une sentsorialak ditu irakaskuntzarako eta hauek aprobetxatu egin behar dira zeren une hauek pasatu egiten dira eta ez dira bueltatzen.

Irakurketa-idazketarako lehenengo pausua sentsoriala da. Umeek hatza erabiltzen dute modu sentsorialean letra bakoitza ezagutzeko, papera eta lijarrekin inguratutako letrak erabiliz. Honek forma geometrikoak ezagutzen laguntzen dio eta baita abilezia garatzen eta letrak fonetikoki ikasten ere. Ondoren, hatza arkatx batez ordezkatzeko du, aurrerago idazteko.

Umeak irakurketa-idazketaren ikaskuntza era naturalean eskuratu behar du. Idazten eta irakurtzen dakiten helduago direnekin elkarbizitzen eta esperientziak elkartrukatzeko, hain zuzen. Honek umearengan irakurtzeko eta idazteko desioa sortzen du eta bere adinari dagozkion gaitasun eta interes propioen arabera, bere garapena ahalbidetuko duen giroa sortuko da.

Hiru, lau eta bost urteko haurrek hitzenganako izugarriko lilura dute. Lilura honek askotan irakurtzen eta idazten hastea ekartzen du tradizionalki hau erakusten hasten den garaia baino lehen.

Materialak indibidualki aurkezteak, irakasleak haur bakoitzaren interes umeak aprobetxatzea ekartzen du. Irakurtzen irakasten hasteko lehen eguna, umeak hitz batek zer esaten duen edo zer jartzen duen jakin nahi duen eguna izan daiteke edota, lijazko letren inguruko interesa agertzen duenean. Alfabeto mugikorraren bidez hitzen eraikuntza edo idazketak ia beti irakurketa aurreratzen du.

Umeak lijazko letrak ikasi ondoren, alfabeto mugikorrarekin hitzak sortzeko prest dago. Irakasleak ekintza honetarako poltsa bat jostailuekin prestatzen du hitz sinpleak errepresentatuz; ogia, ama...Lehenengo, haurrak objektu bat hautatzen du, adibidez; ama eta izena oso poliki ahoskatzen du, letrak letra; a-m-a. Ondoren, lehenengo soinua errepresentatzen duen hizkia hartzen du eta objektuaren ondoan jartzen du. Honela jarraitzen du, soinua bakoitzaren letra hautatuz hitza amaitu arte.

Pixkanaka hitzen zailtasuna handituz joango da, adibidez, “pato” hitzarekin hasi zen eta orain “plato” izena idatzi beharko du.

Irakurketak modu naturalean jarraitzen du hitzen eraikuntzen ariketak egin ondoren. Egun batzuek hitzen zerrenda egin ondoren, umea zerrendaren hasieran idatzi zituen hitzak irakurtzeko gai dela ohartzen da. Hala ere, berak eraiki zituen hitzak ahoskatzea ez da irakurtzea errealitatean. Irakurtzeak beste norbaitek idatzitako hitzak ulertzea eskatzen du. Umeak objektu bakoitzaren ondoan txartelak modu zuzenean jartzen dituztenean, txarteleko hitza

irakurri behar du. Umeak txartelak objektu bakoitzaren ondoren modu egokian jartzeko, txarteleko hitza irakurri beharko du. Ondoren, txartela objektuko irudiarekin eta hitzarekin elkartuko du (oraindik ere eskuak erabiliz ikusmen pertzepzioa egiten duen bitartean).

Aditzak txartel gorri batzuen bidez aurkezten zaizkio eta txartel bakoitzak ekintza bat izango du idatzita.

Gela bakoitzean, irakasleak zailtasun ortografiko bakoitzerako eskuliburu bat edukiko du. Pixkanaka, umeak gero eta hitz konplexuagoak ikasiko ditu, bi edo hiru silabako hitzak. Irakurketa jarduera ezberdinen bidez, hitz horien artean aukeratzeko aukera izango du.

Ume batzuk lau urterekin hasten dira irakurtzen eta beste batzuk bost eta sei urterekin. Adina ez da garrantzitsua. Ume bat azkar hasten bada irakurtzen, gerta liteke jarraitzeko aukerarik ez eskaintzea.. Itxarotea behartzen bazaio, bere interes unea igaro egiten da eta oportunitate aukera hori galdu egiten da (interes natural hori desagertzen delako).

COMENIO (1592-1670)

Iheslari erlijiosoa eta hezkuntza unibertsalaren *-Didactica Magna* bere liburuan garatu zuen kontzeptuaren- lehen defendatzaileetakoa. "Nazioen irakaslea" edo "Pedagogiaren aita" ezizenak eman zaizkio, sarritan heziketa modernoaren sortzailetzat jotzen delako.

Comeniok zioen pertsona guztiak jaiotzetiko ikasteko ahalmena daukatela. Horrela, herri ikastetxea proposatzen zuen, hau da, guztiak izan beharko zutelako ikasteko eskubidea. Helburua bake mundiala zen berarentzat, eta horretarako bide zuzen eta errazena hezkuntza zela zioen.

Bere metodo pedagogikoa oinarri bezala ikaskuntza prozesu naturalak zituen: indukzioa, behaketa, zentzumenak eta arrazoia.

Pertsonaren garapen integrala sustatzean aintzindaria izan zen autore hau. Irakaslea ikasleen eredu izan behar zen. Horregatik, biolentzia arbuilatzen zuen. Ikaslea hezkuntzaren erdigunean kokatu zuen, eta natura behatuz ikaskuntzak bultzatzen zituen, metodo tradizionala alde batera utziz. Gainera, ikasleak ama hizkuntzan ikastea bultzatu zuen, garai horretan latinez ikastea normalena zelarik.

Zenbait ideia:

1-ikasle talde bateri irakasle bakarrak irakatsi behar die.

2-ikasle taldea homogenioa izan behar da adinari dagokionez.

3-ko-heziketa proposatzen zuen: sexu ezberdineko ikasleak eskola berean.

4-ikasleak zailtasun mailaren arabera banatuak egon behar dira.

5-eskolak haien artean koordinatu behar dira honela sareak sortuz eta honela hezkuntza bateratua ahalbidetuz.

6-eskola egutegi bakarra, hau da eskola guztiak egun berean hasi eta bukatu behar zuten.

7-irakasleak ikasleen ama hizkuntzan irakatsi behar zuten

8-biolentzia eskolatik kanporatzea.

9-testuliburuetan testuak eta irudiak tartekatu behar dira eta irakurgaiak ikasleen adinera egokituak egon behar dira.

10-eskolako eraikinak arkitektura sortu zuen: patioekin, lorategiekin, hau da espazio alaiekin eta irekiekin.

OVIDE-JEAN DECROLY

1. MUGIMENDUA ETA AUTOREA

-Testuingurua eta kokapena:

Decroly aipatzen dugunean lehenik eta behin Eskola Berriaren mugimendua esplikatu behar dugu. Mugimendua, XIX. mendearen bukaeran sortu zen eta honen asmoa, hezkuntza berriztatzea eta eskolako arazoei aurre egitea zen. Garai hartan egin ziren entsegu edo lan guztietan eskola erro-errotik aldatzea proposatzen zuten. Batez ere, eskola

tradicionalean, programa eta irakaslea ziren ardatzak. Mugimendu honek ikaslea ardatza izatea proposatzen zuten. Hau da, hezkuntzako prozesu didaktikoari dagokionez, ikaslea jarri zuten erdigunean.

Eskola Berria, hezkuntzaren mugimendua izanik, mugimendu guztiz praktikoa izan zen. Sorreran hezkuntza arlo pribatuan hedatu zen batez ere, hala ere bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero mugimendu hau Europako herrialde ezberdinetako sistema publikoetan zabaldu zen.

XIX. mendean, eskolako sistemen sorrerari forma eman zitzaion. Herrialde desberdinetan indartu egin zen giza eskubideei buruzko ulerkera eta giza eskubide horien erdigunean, herrialdeok honako aldarrikapen hau egin zuten: gizaki guztiak berdinak direnez gero, berdintasun horrek berarekin dakar gizaki guztiek hezkuntzarako eskubidea izatea, bestela, berdintasuna ez da benetakoa izaten, itxurazkoa baino. Printzipio horrekin bat etorritik, eskola nahitaezko, unibertsal eta dohainekoa izan behar da, horren ondorioz gisa, eskola kopurua gehitzea izan zen helburua. Beraz, hasieran, eskola berriztatzea baino zabaltzeak ageri-agerian utzi zituen egiazko hainbat egoera eta arazo. Eta horien ondorioz, eskolaren problematika beste modu batera azaltzeko beharra zegoen, batez ere, ikaslearen beharrezko sakonki aztertuz. Esanenez mugimendu honen aitzindariak, Rousseau, Pestalozzi eta Fröbel izan zirela.

Eskola berriaren mugimenduak zenbait printzipio ezarri zituen eta hauek antolatzeke irizpide pedagogikoak ere.

Printzipioak:

- Eskola bizitzaren baitan kokatu behar da.
- Eskolak kontutuan izan behar ditu, nahitaez, haurren interesak.
- Eskola aktiboa izan behar da.
- Eskola egiazko bizi erkidegoa izan behar da.

Irizpide pedagogikoak:

- Indibidualizazioa.
- Gizarteratzea.
- Hezkuntzaren globalizazioa.
- Nork bere burua hezte

- **Biografia eta pertsonaia:**

Ovide- Jean Decroly, 1871n Reinaxen jaio eta 1932. urtean Bruselan hil zen sendagile, psikologo eta hezitzaile belgikarra zen. Ganteko Unibertsitatean Medikuntza ikasketak egin zituen, eta 1896. urtean doktoregoko ezohiko saria eskuratu zuen.

1901. urtean "Hezkuntza Bereziko Institutua" sortu zuen. Eraikuntza honetan Decrolyk haur "irregularra" hezi eta aztertzen zuen, eta iraultza pedagogikoa hasteko asmoa zuen.

Haur mota horrekin izandako hezkuntza arrakasta dela eta, eskarmentu horretan oinarritu zen ikasle arruntei zuzenduriko "L'Ermitage Eskola" sortzeko. Ikastetxe hori 6 eta 12 urte bitarteko ikasleentzako heziketaz arduratzen zen.

I. Mundu Gerraren ondorioz hezkuntza zerbitzu hori etenda gelditzen da, gudak sortutako umezurtzei babesa eskaintzen jarraitu zuen. 1905. urtean Umezurtzen etxea ireki zuen bertako lehendakaria izanik.

Urtebete beranduago Branbateko Haur Elbarrituen Institutuko zuzendari izendatu zuten eta 1919. urtean, Britainia Handiko Justizia Ministerioaren eskutik Haurtzaro Delitugilerako hartzaile bihurtu zuten.

Decrolyk sortutako metodo pedagogikoa Belgika osoan zehar hedatu zen, eta hango eskola publikoetan ofizialtasunez ezartzeri iritsi zen. 1

1922. urtean AEBra joan eta Ameriketako mugimendu berriztatzailearen aitzindariekin harremanetan jarri zen; besteak beste, Dewyekin eta Kilpatrickekin.

2. PEDAGOGIA ARLOA:

- **Hezkuntzaren kontzeptua, funtzioa, helburu nagusiak:**

Decroly esaten duenez, hezkuntzaren ardatzak, bi helburu ditu: eskola eta bizitzaren arteko harremana eta ikasleak hezkuntza asko behar dituela. Decrolyren hezkuntza xedea haurra bizitzarako eta bizitzaren bidezko hezkuntza prestatzea da, hau da egileak duen iritzia. Decrolyren ekarpenik garrantzitsuenak, ideia elkartuak eta interesguneak dira. Haurren beharrak kontutan hartzen duen hezkuntza aktiboa sortu nahi zuen. Bere helburua honako zen: haurra bizitzarako prestatzea (indibiduala + soziala), haur guztien benetako hezitzailea natura delarik. Autore honen Ideia elkartuen programak bi helburu nagusi ditu, lehenengoa, nork bere burua edo pertsonalitatea ezagutzea, nork bere beharrak, igurikapenak, xedek eta idealak. Eta beste helburua, natura bizi eta menpekoea den ingurunea ezagutzea, bertan parte hartu behar baitu norberaren igurikapenak, beharra, xedek eta idealak errealitatea bihur daitezen.

- **Ikaskuntza-irakaskuntza eredu:**

Bere iritziz, ikaslea hezkuntzaren ardatza da. Irakaskuntzaren baliabide bakarra irakaslearen ahozko adierazpena dela dio.

Bestetik, Decrolyk edukien irakaskuntza- ikaskuntza ikasturtero errepikatzen dela dio, gero eta modu zabalago batean.

Edukiak lantzeko “ideia elkartuen” programaren interpretazioa baimentzen duen ariketa sail bat aurkezten du. Ariketa hauek orden psikologiko batean kokatzen zituen eta adimenaren prozesuaren ekintza ziklo bat osatzen dute. Hortaz, behaketa ariketak, elkarketa ariketak eta adierazpen ariketak bereizi zituen.

Metodo bideo-bisuala erabili zuen haurren irakurketarako metodo gisa, hurrengo puntuak ezaugarri nagusiak direlarik: irakurketa begi metodoa da, Esaldi eta hitz osoaren erabilera, interesak eta jolasak lagundutako errepikapena, irakurketa interesgunearen programan oinarrituta dago eta begi oroimenaren lanketa. Hau guztia, ikusmena haurrak garatuen duen zentzumena dela oinarrituz.

Printzipio orohartzailea hartzen duen kontutan. Hezkuntza jolasari garrantzi handia eman zion, hezkuntzarako balio handiko baliabide bat dela baitio, horregatik hiru multzotan bereizten ditu: Zentzumenezko sumaketa eta gaitasun motorea garatzen dutenak, Ideia orokorrean edo elkarte induktibo eta deduktiboen jolasak eta propioki didaktikoak direnak.

Eskolaren antolaketari dagokionez, Decrolyren postura honako hau da: Eskolak naturarekin harreman zuzena edukitzea, aretoak tailerren eta laborategien antza izango dute, eskolak adin eta sexu ezberdinetako ikasle kopuru txikia izango du, ikastaldea ahalik eta homogeneoena izan behar du, haurrek jasotzen duten diziplina, haurren aktibitate eta lanaren ondorio da.

Bere ustez, irakaslea aktiboa, adimentsua, sormen handikoa izan behar zuen, haurra maitatu behar zuelarik.

- **Ondorengo eraginak:**

Egungo eskoletan indarrean dauden oinarri teorikoak eta praktika pedagogikoak berak sortuak dira.

Gainera, ekarpen garrantzitsu bat egin zuen: berak “ideia elkartuak deitu zioena gaur programa izenaz ezagutzen dugu, eta “interesguneak egungo metodoa da.

Decrolyk gutxieneko ezagutza intelektuala bultzatu zuen, hots, haurren oinarriko beharretan funtsatutako programa diseinatzen du. Bestetik, tekniken lorpena, gaur egungo prozedurazko edukiak proposatzen ditu: kalkulua, idazketa, irakurketa, eskulanak, marrazkia.

MONTSERRAT SARTO

Autore honen metodoari buruz ez dugu informazio handirik aurkitu, baina irakurketa bultzatzeko ikerketa ugari egin zituen. Gainera, haur literaturan zentratu zen gehienbat, liburu pila transkribatuz...

Horretaz gain, hainbat aldizkari eta iragarki argitaratu zituen, besteen artean GENIAL (1967-1969), VOLAD (1948-1958)... beste sarien artean 1987.an Haur Hezkuntzako prentsaren Nazioko saria jaso zuen.

ISABEL SOLÉ

Isabel Solé, gaur egunartzelonaunobertsitatean dagoen katedratikoa da. Idazle eta ikertzailea dugu emakume hau. Prestakuntzari dagokionez, alde batetik hezkuntzaren psikologian eta bestetik eskuhartze psikologikoan graduatua da.

Ikertzaile aldetik, gai hauek izan ditu aztergai; Lehenik eta behin, etapa ezberdinetan (haur-hezkuntza eta unibertsitatea bitarte) ematen diren idazketa eta irakurketa estrategien ikaskuntza-irakaskuntza- eta ebaluazio-prozesuak, Bestetik, eskolotako hezkuntza praktikak eta azkenik, laguntza psikopedagogikoak; eredu kontzeptualak eta hezkuntza praktika hobetzeko estrategiak.

Azkeneko urteetan egin izan diren ikerketa psikopedagogiko eta psikologikoei esker, irakurketa eta idazketan parte hartzen duten prozesu ezberdinei buruzko ezagutzak handituz joan dira. Isabel Solé-k, nahiz eta idazmena ere ikertu, irakurketan zentratu da gehienbat eta hainbat lan eta liburu plazaratu izan ditu irakurketaren inguruan.